



ALTSASUKO FESTAK, KARTEL LEHIAKETA 2022 FIESTAS DE ALSASUA, CONCURSO CARTEL 2022

HAURREN MODALITATEA MODALIDAD INFANTIL

Festetako programan kontrazala izango den kartela aukeratuko du modalitate honek. Esta modalidad elegirá el cartel que será la contraportada del programa de fiestas.

GAIA | TEMA

Altsasuko festak 2022
Fiestas de Alsasua 2022

NORI ZUZENDUA | DIRIGIDO A

Altsasuko ikastetxeetako Lehen Hezkuntza eta DBH 1. eta 2. mailako ikasleak.
Alumnado de Primaria y 1º y 2º de la E.S.O. de los centros escolares de Alsasua.

FORMATUA | FORMATO

A3 bertikala (ahal bada kartulina). Bakoitzak nahi dituen materialak erabil ditzake.
A3 vertical (a poder ser en cartulina). Los materiales empleados serán libres.

TESTUA | TEXTO

Kartelean testu hau agertu behar da ezinbestean:
ALTSASUKO FESTAK/FIESTAS DE ALSASUA 2022
El texto que obligatoriamente deberá incluirse en el cartel será:
ALTSASUKO FESTAK/FIESTAS DE ALSASUA 2022

EPEA | PLAZO

Iortia Kultur Gunean aurkeztuko dira lanak ekainaren 16ko eguerdiko 14:00ak baino lehen.
Los trabajos se presentarán antes del 16 de junio a las 14:00h en el Centro Cultural Iortia.

AURKEZPENA | PRESENTACIÓN

Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da ondoko datuak zehaztuz: izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa, eskolatu dagoen ikastetxea eta ikasmaila. Haurren modalitatean parte hartzen dela ere zehaztuko da.

Con el cartel se adjuntará un sobre cerrado con la siguiente información: nombre y apellidos, edad, dirección, teléfono, centro en el que estudia y curso escolar que realiza. También se indicará que concurre a la modalidad infantil.

SARIA | PREMIO

Marrazketako materiala eta 60€ eskudirutan.
Un lote de material de dibujo y 60€ en metálico.

JABETZA | PROPIEDAD

Kartel sarituaren jabetza Altsasuko Udalarena izango da. Horregatik, Udalak saritutako kartelei nahi adina kopia litografiko edo beste motatakoak egiteko eskubidea hartzen du, nahi duen erabilerarako. Eta beraz, egileek ezin izango dute erreklamaziorik egin. Sariaren bidez, Altsasuko Udala saritutako kartelaz jabetzen da, eta hari dagozkion izaera ekonomikoari buruzko jabetza

intelektualeko eskubideez ere, hau da, kopia, banaketa, jakinarazpen publikoa eta itxuraldaketa, betiere Jabetza intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 26. artikulua ezarritako epearen barruan, halako maneran non Udalak eskubidea izango baitu lana edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukituzko batean aurkezteko, bai eta merkataritza helburuekin lana banatu edo jendaurrean jartzeko ere. Espresuki barne hartzen ditu, baita ere, lanak hala *on-line* eran nola Internet motako sare digital elkarreragileen bidez eman eta igortzea.

El cartel ganador será la contraportada del programa de Fiestas y pasará a ser propiedad exclusiva del Ayuntamiento de Altsasu/Alsasua. Así, el Ayuntamiento podrá efectuar en todo momento cuantas reproducciones litográficas o de otro tipo precise para su libre uso, sin que sus autores puedan efectuar reclamación alguna. Mediante el premio, el Ayuntamiento adquiere, en exclusiva, la propiedad del cartel y todos los derechos económicos de propiedad intelectual inherentes a la obra premiada, y podrá libremente proceder a la reproducción, distribución, comunicación pública y transformación durante el plazo señalado por el artículo 26 del Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual, teniendo derecho a expresar la obra por cualquier medio o soporte tangible, o intangible, comprendiendo todas y cada una de las modalidades de explotación, incluyéndose los derechos de reproducción en cualquier soporte o formato, así como los derechos de distribución y comunicación pública de la obra para su explotación comercial. Queda expresamente incluida la emisión y transmisión *on-line* de las obras y su puesta a disposición a través de las redes digitales interactivas, tipo Internet.

EPAIMAHAIA | JURADO

Epaimahaia alkateak edo berak izendatutako zinegotziak eta arte plastiko eta ikusmen-arteetan adituak diren lau pertsonak osatuko dute, Udalak izendatuak.

Presidido por Alcaldía o por un corporativo/a en quien delegue, y por cuatro profesionales de las artes plásticas y visuales a designar por el Ayuntamiento.

INFORMAZIO GEHIAGO | MÁS INFORMACIÓN

Kultura Zerbitzua | Servicio Municipal de Cultura | 948 56 42 72 | iortiakultura@altsasu.net